

IZKUNTZA POLITIKEA ETA EUSKEREAREN NORMALIZAZINO

Bakio mailako izkuntza politika egokia, zeatza eta iraunkorra egin bear dogu. Bakion Bakiorakoa.

Euskerearen garapena eta normalkuntza bultzatutako asmoz, euskera gure nortasunaren erakusgarri nabariena eta garhiena dalako, leentasunezko arreteta emon bearjako.

Euskerearen birreskurapena gure eskuetan dagoala eta ez ondorengoengan jakinda, euskerearen aldeko izkuntza politika serio baten ezarpen eraginkorra bear-bearrezko dogu. Au egia bihurtutako bateratasun eta adostasunik zabalena bear dogu erriko erakunde eta eragile bizien artean. Arik eta inplikaziorik aundiena bearrezkoa da, argi eta garbi, izkuntza politika eraginkorori sortuteko eta normalkuntza bidea ihili aal izateko.

Egingo dan izkuntza politika onek ildoak eta leentasunak argiro zeaztu bearko dauz arloka, au da, euskaldunen arteko euskerearen erabilera bultzatutea, ghettokerietan sartu barik. Ortik sortuko dan izkuntza plangintzeak be orreri lotuta joan bear dau.

Bakioko erriak euskal berbadunei leku egiteak erabile-rea sustatutea dakar:

- euskera ondorengoentzat bermatutea.
- euskerearen oiko erabilera eremuak sendotutea.
- euskerearentzako erabilera eremu barriak irabaztea.
- hizitza sozialean euskera agoz zein idatziz egotea.

Izkuntza politikearen oinarria azterketa soziolinguistikoa da. Orren ondorioa, barriz, izkuntza normalizazino egitasmoa edo plangintzea da.

Azterketa soziolinguistikoaren emoitzen arabera eta abiapuntua ezagutu ostean, elburuak mailakatu eta epe labur, ertain eta luzean lortutako izan leitekezan elmugak ipini bear doguz. Onetan datza izkuntza politika egokia. Elbururik argiena eta aundiena euskera arlo, maila eta era guztietan -idatziz zein gagoz- gero eta geiago erabilatea da.

Azterketa soziolinguistikoak aldiro-aldiro egiten dirala, izkuntza politikea be, areen ondoren etab bearrizanen arabera birrikusi bearko dogu eta egunean-eguneango egoerari egokitu.

Administrazioak garrantzi aundia dauka normalkuntza bidean. Bere barruan euskera jakitea eta erabilatea bultzatu bear da. era berean edapen lana egin bear dau erriari begira. Kanpora nai barrura begira Udalak euskerearen normalkuntza bidean dauan garrantzi berezia azpimarratutekoa da. Udalak berak bideratu bear dau erriko normalkuntza prozesua.

Udalaren aldetik, borondate garbia bearrezkoa da. Borondate ekintza bihurtu. Euskerearen aldeko ekimen pribatuek euskerearen egoera bera obetu leikee. Udalaren aldetik laguntza osoa bearrezko dabe orretarako. Udalaren aldeko jarrera politikoari nai ta naiezkoa deritxot. Ze, azken baten, euskera birreskuratutako borondate erritarrengan lortu bear dogu, orretarako bearrezkoak diran balibideak ipiniz.

Izkuntza politika eta plangintza orokorra indarrean

ipinteko, alkarlana eta Udalaren eta beste Erakunde Publikoen laguntza tekniko eta ekonomikoa ziurtatu bear dogu. Birreskuratze eta normalkuntza plangintza orretan, administrazioak eredugarri izan bear dau, erritarren aurretik joanez. Udalerrirako izkuntza jokabidea sortu ezkerokoa, bearrezkoa da atzean bitarteko ekonomikoak eskuetan ipintea.

Buruan argi ta garbi euki bear dogu, euskera egunero bizitzan erabialteko dala. Eskaintza guztiak euskeraz, mezuak, iragarkiak. ...diruz Iagundu be. Sortuko diran bearleku barriak euskaldunez bete. Azken baten, euskerearen normalkuntzarako gitxienekoak bete bear dira. Ezin onartuko litzake ogi apurak emotea. Izkuntza gitxieneko eskubideen ordez, euskera zerbitzua erdikineta ipiniko bagendu, esaterako.

Orain arte euskerearen ezagutza politikea nagusi izan bada, aurrerantzean erabilereari garrantzi berezia emon bear deusogu. Orretarako, udalerrri mailan, gure euskaldunak sortu bear doguz. Sare eta zerbitzu sozial guztiz euskaldunakaz. Euskeraz egunean-egunean bizitea dogu elburu. Orregaitik arreta berezia zor eta emon bear jako euskereari. Euskera adierazpide edo ondaretzat artuten dogun neurrian, izkuntza berezitat bahestu bear dogu.

Izkuntza politikeek euskerearen birreskurapena bizitzako arlo guztietarako lortutea ezezik, aldaketa soziolinguistikoa be lortutea aalbidetu bearko leuke. Norbanakoarengandik asita. Norberaren izkuntzaren aldaketa bearrezkoa da eta. Era naturalean jazo eta borondatez izan bear dau. Geroagoko baten, izkuntza erabilpen aldaketa mailakatu lortu aal izateko. Erri ekimen eta asmo guztiak, bai gizarte, bai ekonomia, bai kultura edo politika arloan, bearrezko dira aldaketa ori lortuteko.

Erritarren artean izkuntzearen aldeko jokabideak garatutea agintari politikoen erantzukizuna da. Eurok oso-osoa alde egon ezean, elburuak lortutako ekintzez baina, ezin leiteke ezer ganorazkorik egin. Erri borondate ekintza bihurtu bear dabe agintari politikoez eta edozein arlotan neurriak artuten dabezan lez, euskera izkuntza politikan be neurri argi eta garbiak artu bearko leukeez. Erritarren arteko norberaren izkuntzaz irudi txarra eukitea ez da normala eta. Orregaitik izkuntza politika sortutea bear-bearrezkoa da.

Amaituteko, izkuntza politikatik sortuko dan izkuntza normalkuntzarako plangintzeak urrengo arlorik nagusienean eragin hear dau:

- ezkuntzan.
- erri administrazioan.
- erri zerbitzuetan (osagilea...).
- kaleko izkuntza erabilpenean.
- sendiaren barruko izkuntza erabilpenean.
- udatiarrengan.

INIAKI MARTIARTU